

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa. Onestea alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, eta neurriak har daitezela nekazaritza aseguruetatik eratorritako zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpenari lotuta

Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi zuen) 26. eta 33. artikuluetan xedatzen duenaren arabera, balio erantsiaren gaineko zerga zerga itundua da, eta Estatuak une bakoitzean xedatzen dituen arau funtsezko eta formalen bidez arautzen da, berariazko gai batzuetan izan ezik.

Irailaren 20ko 17/2022 Errege Lege Dekretuak (Energiaren arloan presako neurriak hartzen ditu kogenerazio instalazioei ordainsari araubidea aplikatzeko, eta aldi baterako murrizten du erregai jakin batzuen EB barruko entreegi, inportazioei eta eskurapenei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren tasa) 5. eta 6. artikuluetan aldatu egin du honakoei aldi baterako aplikagarri zaien balio erantsiaren gaineko zergaren tasa: alde batetik, gas naturalaren EB barruko entreegi, inportazioei eta eskurapenei, eta, bestetik, biomasatik datozen briketen eta pelleten EB barruko entreegi, inportazioei eta eskurapenei eta egurretarako zurari.

Horrez gain, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriena eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun-egoera batzuei erantzuten laguntzeko 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuak balio erantsiaren gaineko zergaren tasa horien luzapena ezarri du 2023rako.

Horren guztiaren ondorioz, beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoko zerga araudian txertatzea aipatutako errege lege-dekretuetan balio erantsiaren gaineko zergari buruz sartutako aldaketak.

Era berean, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzen da, eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien gaineko kuota gradualek salbuesten dira hipoteka maileguak eta kredituak berritzeko egiten diren eskriturak, baldin eta baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren eta azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege Dekretuaren bidez sartu den Jardunbide Egokien Kode berriaren babesean egiten badira.

Aldaketa hori egitea presakoa da, salbuespen horren onuradunek eragin negatiborik jasan ez dezaten.

Azkenik, aldatu egiten da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan nekazaritza aseguruaren kontratuen bidezko zenbait konpentsazioren aldi baterako egozpena, zenbait fenomeno meteorologikoren eta suteren ondorioz mahastietan eta zereal, erremolatxa, patata, lekale, lekadun eta olio hazi laboreetan izandako galerengatik.

Aldaketa hori presakoa da, 2022ko zergaldiari eragiten diolako.

Ikusi da Zerga Araudiko Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bilkuran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Foru Arauak (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa) Foru Aldundiari ematen dizkioten eskumenez baliatuz, presa arrazoiak direla-eta, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zerga

Bat. Gas naturalaren EB barruko entreegi, inportazioei eta eskurapenei aldi batez aplikatzekoa zaien balio erantsiaren gaineko zergaren tasa.

2022ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2023ko abenduaren 31ra arteko indarrarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie gas naturalaren EB barruko entrega, inportazio eta eskuratzeei.

Bi. Biomatatik datozen briketen eta pelleten EB barruko entreegi, inportazioei eta eskurapenei eta egurretarako zurari aldi baterako aplikagarri zaien balio erantsiaren gaineko zergaren tasa.

2022ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2023ko abenduaren 31ra arteko indarrarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie Biomatatik datozen briketen eta pelleten EB barruko entreegi, inportazioei eta eskurapenei eta egurretarako zurari.

2. artikulua. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

2022ko azaroaren 24tik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 69. artikulua (Bat zenbakiko B) letraren 47. zenbakia. Aipatutako zenbakia honela geratu da idatzita:

“47. Zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien gaineko kuota gradualetik salbuesten dira hipoteka maileguak eta kredituak berritzeko egiten diren eskriturak, baldin eta hauen babesean egiten badira: Baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren babesean eta azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege-Dekretuaren bidez sartu zen Jardunbide Egokien Kode Berriaren babesean (19/2022 Errege Lege Dekretua, azaroaren 22koa, Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka maileguen interes tasen igoera arintzeko Jardunbide Egokien Kode bat ezartzen duena, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretua aldatzen duena eta hipoteka maileguen merkaturak hobetzeko beste egiturazko neurri batzuk hartzen dituena).”

3. artikulua. Nekazaritza aseguruetatik eratorritako konpentsazioen aldi baterako egozpena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, mahastietan eta zereal, erremolatxa, patata, lekale, lekadun eta olio hazi laboreetan izandako galerengatik

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta, hurrengo paragrafoan jasotzen diren arrazoiak direla eta, nekazaritza aseguruaren kontratuen bidez mahastien eta zereal, erremolatxa, patata, lekale, lekadun eta olio hazi laboreen galaren konpentsazioarekin zerikusia duten zenbatekoak jasotzen badituzte 2022an, jasotako zenbateko horiek guztiak 2022ko edo 2023ko zergaldiari egoztea aukeratu ahal izango dute, aplikatzen dituzten edo orain arte aplikatu izan dituzten diru sarreren eta gastuen aldi baterako egozpenaren irizpidea alde batera utzita.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak honako hauek dira:

- 2022ko apirilean Arabako Errioxako hainbat udalerritan gertatutako izozteak;
- 2022ko ekainaren 4ko harri jasa, Iruraz-Gauna, Donemiliaga, Barrundia, Agurain, Dulantzi eta Burgeluko udalerritan;
- bai eta 2022an Araban labore finketan gertatutako bero boladak, lehorteak eta suteak ere.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, zeinak egokitzen dituen neurriak eta prozedurak hartuko baititu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari berariaz jakinaraztea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA